

Miguel Zugaza Miranda (Durango, Bizkaia, 1964) Artearen Historian lizentziatu zen 1987. urtean, Madrilgo Complutense Unibertsitatean, eta, ondoren, Hirugarren Mailako ikasketak jarraitu zituen zentro berean.

Lan jarduna 1986an hasi zuen, Ikeder (Bilbo) kultur zerbitzuen enpresaren Zuzendaritza hartu zuenean. 1994. urtera arte egon zen bertan lanean, eta urte horretan Centro de Arte Reina Sofia Museo Nazionaleko Zuzendariordetzan hasi zen lanean, 1996. urtera arte.

1996tik 2002ra, Bilboko Arte Ederren zuzendari kargua bete zuen, eta bertako jarduna eta azpiegiturak modernizatzeko prozesu garrantzitsua jarri zuen abian.

2002ko urtarrilean, Prado Museo Nazionaleko zuzendari izendatu zuten, eta kargu hori bete zuen 2017ko martxora arte.

Museoen alorrean gauzatutako jardunaz gain, zientzietako hainbat sari eta batzordeetako epaimahaietako kide ere izan da. Era berean, lan-ibilbide osoan hainbat aintzatespen jaso ditu. 2005eko apirilaren 26an, Italiako Errepublikako merituaren kondekorazioa jaso zuen, Cavaliere Ufficiale gisa. 2006ko ekainaren 13an, Frantziako Errepublikako presidentearen proposamenez, Merituaren Ordena Nazionaleko jaun izendatu zuten. 2011ko apirilaren 19an, Bilboko kontsul izendatu zuten, hiriko Merkataritza Ganberaren proposamenez. 2012ko apirilaren 16an, Madrilgo Erkidegoak Maiatzaren Biko Ordenaren Gurutze Handia eman zion. 2013ko apirilean, Jakiunde-Zientzia, Arte eta Letren Euskal Akademiako kide izendatu zuten. 2013ko irailaren 10ean, Errusiako Federazioaren presidenteari Adiskidetasunaren Ordenaren estatuko kondekorazioa eman zion. 2016ko ekainaren 7an, Austriako Errepublikako enbaxadoreak Zientzia eta Arteen 1. mailako Ohorezko Gurutzea eman zion. 2017ko apirilean, Alfontso X.a Jakitunaren Ordena Zibilaren Gurutze Handia eman zioten, eta, urte bereko urrian, Hispanic Society of America elkarteak Sorolla Domina eman zion.

2017ko martxoan, Bilboko Arte Ederren Museoko zuzendari izendatu zuten.